

OLAZTI

Deialdia, administrariaren lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko, txanda murriztuan. Izendatu beharreko epaimahaikideen izendatzea, onartuen behin betiko zerrenda eta proben hasieraren eguna

Ikusirik aipatu deialdia eta haren oinarriak argitara eman zirela 2025eko 63. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, martxoaren 28an.

Kontuan izanik ez dela baztertu eskaera aurkeztu duen izangairik, ebatzi behar da izangai onartuen behin betiko zerrenda, deialdiaren 4.3 oinarrian xedatutakoaren arabera.

EBAZTEN DUT:

1.–Onestea deialdirako onartu diren izangaien behin betiko zerrenda, oposizio-lehiaketaren bidez betetzeko Olaztiko Udalaren zerbitzuko administrari-ofizialaren lanpostu bat, txanda murriztuan.

–Izangai onartuen behin betiko zerrenda:

NANa	INIZIALAK
189	I.P.J.

2.–Deialdiaren ariketa 2025eko ekainaren 11n izanen da, asteazkenean, 9:30ean, Olaztiko kultur etxeko liburutegian. Izangaiek nortasun agiri nazionala eraman beharko dute.

3.–Izendatzea Virginia Alonso Aparicio, Olaztiko Udaleko karrerako funtzionarioa, epaimahaikide-idazkariaren ordezkari; Egoitz Albarracín Albiztur, Olaztiko Udaleko karrerako funtzionarioa, hirugarren epaimahaikide; eta Carlos Luquin Astiz, Olaztiko Udaleko karrerako funtzionarioa, hirugarren epaimahaikidearen ordezkari.

Azaltzea errekurtsio hauetako bat aurkez daitekeela administrazio bidea agortzen duen ebazpen honen kontra, hautara:

a) Berraztertze errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.

b) Gora jotzeko errekurtsioa, zeina zuzenduko baitzaio Nafarroako Administrazio Auzitegiari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi ondotik.

c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, zeina zuzendu behar baitzaio Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari edo Salari, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Olaztin, 2025eko maiatzaren 28an.–Alkatea, Joseba Vizuite Askargorta.